

Aretxabaleta,
1994ko urriak 27

Aretxagazeta

BELTRAN DE HEREDIA, FELIS
ANDRAMARI, 7- 2. EZK.
ARETXABALETA

**Desadostasunak
adostuz, onartu dira
Udal-Aurre-kontuak**

• Umeak
liburutegira

• Argazki
lehiaketa

• Emakundeko
epaimahaia

3. Kartak
Manipulazio baten istorioa.
4. Hamabostean behin
Arrasate Irratiaren aurkezpena.
5. Hamabostean behin
Antzerki saioa umeentzat.
7. Hamabostean behin
Ramones taldea Gaztetxean.
- 8-9. Hamabostean behin
Hauteskundeak.
- 10-11-12. Erreportaia
Aurrekontuak.
15. Kontu zaharrak
16. Kultur leihoa
17. Jolasean
18. Urretik
Julen Barandiaran.
19. Apuntetako eta Aretxazoka

GOGUEK BAI BAÑA...

Kurtzebarriko eskolatik frontoira, hor dau leku edarra jolasteko, baña askotan alperrik, hamen eurixa sarri itten dau, aterpeia etorko litzeke ondo, bai bero haundixendako be.

Kurtzebarri frontoian, ezkerreko orma barreretik urak urteten dau eta posuak itten die.

Goiko kanaloia nire ustez loittuta dau (ura jausten danien). Kanaloitik bera ondo etorko litzeke ipinttia hiru edo lau metroko franja bat afrontuendako eta euskixendako. Aber baten bat enteretan dan.

Jose San Miguel Lasarte

Aretxagazeta


Argitaratzailea: Aretxagazeta Elkarte, Kultur etxea, Aretxabaleta Tfnoa: 79 01 05. 151 postakubxatila
Zuzendaria: Inaxio Garro, **Erredakzio-kontseilua:** Nati Abasolo, Marta Madinabeitia, Iñigo San Juan, Mirian Txintxurreta, Rosa Mari Uriarte. **Publizitate eta erredakzio arduradunak:** Alberto Garro. **Kolaboratzaileak:** Aitor Antxia, Iñaki Urreta, Loramendi K.E, Udala. **Inprimategia:** Eguzkigrif **Tirada: 2.500 ale.** Aretxagazeta paper Birziklatuan egiten da. **Lege gordailua:** SS378 / 94.

Nola gastatuko zenuke Udal-aurrekontua?



Alberto Martinez
(Langilea)

Zinema bitan banatuko nuke pelikulak emateko. Bestalde Durana kalea bein betirako konpondu eta herria ere betirako kanalizatuko nuke, beti ari baitira obretan.



Miguel Angel Gonzalez
(Merkataria)

Kultur iharduerak sendotu behar direla uste dut, horrela jende gehiago erakarriko genuke eta bertakoek ez zuten kanpora joateko beharrik izango.



Juxe Zuazua
(Irakaslea)

Gaszteendako lan irtenbideak aurrera ateratzen ahalegin gehiago egingo nitzuke eta horrez aparte kultur-taldeei diru laguntza gehiago eman..

KARTAK

Manipulazio baten istorioa

Eusko Jaurlaritzak Interbenzio Gune Partehartzaileetan (IGP-NIP) oniritzi sozial txikiena jaso zuen alternatiba bultzatzen ari dela salatu nahi dugu. Azkenean biztanleen iritzia eta ondorioak alde batera utziz, autopistaren aldeko apostua egin baitute.

Jadanik autopistaren aurreproiektua aurkeztu dute udal-txeetan eta esan behar dugu, aurreproiektu hau 91 urtean egin zela, beraz zaharra da eta gainera ez ditu IGPetan ateratako ondorioak kontuan hartzen.

IGPetan azaldu zen arabera, herritarren %80k egungo errepidea hobetu nahi du. Errepide azkarren aldekoak %15 besterik ez dira eta peajearen aldekoak %5.

Beraz esan dezakegun bakarra zera da: Eusko Jaurlaritzaren jarrera guztiz autoritarioa dela.

Debasak azkar asko esan du

IGPetan ateratako ondorioak kontuan hartuko dituela, baina bide honetatik gaizki doaz. IGPetako emaitzak ezagutu eta berehala hasi ziren irakurketa tendentzi osoak. Administrazioaren manobra garbia ikusi genuen hasieratik. NIP-IGPren martxan jarri zituzten harri mugimenduaren ahotza isilerazteko, uste zuten bailarako biztanlegoa autopistaren alde azalduko zela, baina azkenean...

Asko eztabaidatu eta gero IGPtan parte hartu genuen. Azkenean denborak, "gizarteaz enpresak" eta administrazioak arrazoia eman digute, guztiak aurpegia garbitzeko maniobra bat besterik ez zen.

Guzti hau lotsagarria izanik gainera autopistaren afera saskibaloiarekin nahastu dute, (gogoratzen al zarete 1991ko udan Foru Aldundiak Askatuak saski baloi

taldeari eginiko proposamena? Foru Aldundia dirua emateko prest zegoen "Leitzarango autobidea" izena jarri ezker) Arrasate saskibaloi taldea diru publikoz finantzatuz, EBA ligan "Urbina-Maltzaga saskibaloi taldea" izenarekin aurkeztea eta "Maltzaga-Urbina irtenbidea" eslogana eramatea lortu du Debasak.

Uste dugu DEBASA, kirol erakunde baten egoera larriaz baliatu dela, kirolaren erabilera higuin garria egiten ari dela eta honelako jarrera zikinekin garbi gelditzen dela norainoko borondate maltzurra daukaten.

Azkenik berri on bat, Debasak ziurtatu zuenez Bilbo-Behobia autopistaren peajea ez da luzatuko, beraz 2003 urtetik aurrera A-B autopista dohainik erabili ahal izango dugu. Ea egia den; edo gaizki ulertu dugu?

EGUZKI taldea



Hemen ditugu gaztetxoak liburutegian jo ta ke

Almen eta Kurtzebarri eskolen eta Atxabaltako liburutegiaren ekimenaren ondorioz gure gaztetxoek liburutegia nola erabili ikasteko aukera dute. Jandik 150 ikasle izan dira, guzti hauek Almenekoak, eta laster Kurtzebarri eskolako beste mardoska bat joango da. Gazte hauek 10etik 13ra bitarteko adinekoak dira eta diapositiba eta hainbat jokuren bitartez liburutegian moldatzeko gai izango dira.

Arrasate Irratiaren aurkezpena

Aspaldian dabil Arrasateko Udala irratia abian jartzeko asmotan. Proiektu horren ardura-dunek bidalitako lerroak dituzue hauek. Prozesu luze honetan, programazioarekin hasteko baimena bakarrik falta ei zaie.

Hona hemen aurreikusita da goen programazioa:

GOIZEKO ALBISTEGIA: Zerbitzu albistegia izango da. Arrasateko aktualitatearekin lehen harremana. Bertan, prentsa-ren lehen orriak eta kronika lokal-en errepasoa.

MAGAZINA: Albistegiaren

ondoren, ordu t'erdiko magazina. Tono lasaiagoa erabiliz, gertuko informazio orokorra aztertuko dugu, entretenimendu saio txiki batzuk tartekatuz.

Saio honek, informazioa eskaintzeaz gainera, saioan parte hartzeko aukera emango du. Era askotako informazioak aztertzen ditu saio honek.

EGUERDIKO ALBISTEGIA: Albistegi hau puntualagoa izango da. Eguneko notiziak (lokalak, jakina) aztertuko dira.

Kirolek ere euren tokia, garrantzitsua, izango dute.

Baina, nola egin programazio hau? Adibidez, **ARETXAGAZETA** zabaldu nahi duen informazioa eskainiz. Beraz, denon laguntza nahitaezkoa da. Guretzat interesgarria den informazioa zabaldu nahi dugunean, Arrasate Irratiarekin harremanetan jarri baino ez dugu egin behar. Euren telefono-faxa hau da: 79 58 77.

Laister, beraz, euren berri izango dugu eta, denon behar eta asmoak ezagutu ondoren, elkarrekin proiektu interesgarri hau aurrera aterako dugu.

Horrela espero dugu guk ere.

ANGELINES
Autozerbitzua



Mitarte, 16

☎ 79 61 42

**IZOTZ
TABERNA**

Mitarte, 16

☎ 79 73 65

**Egin zaitez
Aretxagazetako
bazkide:**

**Berandu baino
lehen deitu
79 01 05 telefonora**



Umeak adi-adi txontxongiloei

Antzerki saioa umeentzat

Aurreko ostegunean, hilak 20, Loramendi Dantza Taldearen lokalean, umeek izugarri ondo pasatu zuten "Bihar" antzerki taldearekin. Ekitaldi berezi hau Udako Drogomenpetasunaren Prebentzio sailak antolatu zuen eta gaztetxoek zuzenduta izan zen.

Antzezenaren izena "Bizi alai" da eta ingurugiroa nola zaindu izan zen gai nagusia. Antzezena hiru ixtoriotan banatuta azaldu zitzaigun, eta guztira hiru

ordu laren inguruko iraupena izan zuen.

Kasu honetan, talde bizkaitar honen publikoa Kurtzebarri eskolako gaztetxoak izan ziren, Aurre-eskolako 2. eta 3. mailakoak eta 1go zikloko 1. eta 2. mailako umeak hain zuzen.

Esan beharrekoa da, antzezena txontxongiloen bitartez egin zela eta bukaeran, guztiok triste-triste, euren betiko geletara bueltatu behar izan zuten.

Ez galdu aukera


Ortzadar Aretxabaletako Atsedean Taldeak 94-95erako antolatutako Zapatuz-Zapatu ekin-tzan parte hartu nahi duten haur guztiek apuntatzeko epea zabalik izango dute urriak 31tik azaroak 4arte.

Buzoietan jasoko duzuen informazioa irakurri, izenemate horria bete eta taldeko lokalera (herriko plaza 7) ekarri lehen bait lehen. Aurten haurrei aseguru bat egitera behartuak ikusi gara eta hau ordaintzeko 1500 peza ekarri beharko dituzue. Lokaleko ordutegia 5etatik 8retara da eta informazio gehiago jaso nahi duzuenontzat 79 01 84 telefonoa zuen zerbitzura duzue edozein kontsulta egiteko.

Aurten 18 saio, 5 irteera eta 3 egun berezi izango ditugu. Zure semealabaren taldeko programaketa ikustea nahibaduzu pasa zaitez lokaletik eta bertan eskatu. Hasiera eguna azaroak 5ean izango da arratsaldeko 4retan harriko plazan.

ARLUTZ TABERNA

Mitarte, 16 ARETXABALETA Tfnoa: 79 32 34



Hauxe dugu iazko edizioko irabazlea

Argazki lehiaketa

Murruxiko Mendizale Elkar-teak eta Aretxabaletako Udal Kultur Batzordeak VIII. Argazki lehiaketa antolatu dute. Lanak aurkezteko epea abenduaren 1ean amaituko da.

Lehiaketa honetako oinarriak hurrengoko hauek dira:

1.- Lehiakideak: Nahi duten argazkizale afizionatu guztiak parte har dezakete.

2.- Gaiak:

- A Atala: Gaia askea izango da. Txuri beltzeko paperean nahiz koloretan egin daiteke. Lan bakoitzaren atzekaldean lema eta argazkiaren izenburua agertu behar da.

- B Atala: "Mendia bere hedapen osoan" izango da gaia. Beste baldintzak A Atalaren berdinak.

3.- Nora bidali: Lanak bidaltzek ez du inolako gasturik izango eta ARGAZKILEHIAKETA MURRUKIXO M.E., postakutxatila 34, 20550 ARETXABALETA zuzenbidera bidaliko dira.

4.- Onarpen epea: 1.994ko abenduaren 1era arte.

5.- Sariak:

- A Atala:

Lehenengo saria .. 40.000 pta. eta garaikurra

Bigarren saria 30.000 pta. eta garaikurra

Hirugarren saria ... 20.000 pta. eta garaikurra

- B Atala:

Lehenengo saria .. 40.000 pta. eta garaikurra

Bigarren saria 20.000 pta. eta garaikurra

Herriko onenarentzat 10.000 pta. eta garaikurra.

Egile bakoitzak sari bakarra jaso dezake.

Lan guztiak abenduaren 21ean Aretxabaletako Udaltzeko Erakusketa Aretxean aurkeztuko dira.

Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarri hauek onartzea suposatzen du. Hemen agertzen ez den edozein gorabera sortu ezker, antolatzaileek erabakiko dute.

Lerro hauen bitartez Arrasateko ERDU-AEK euskaltegian matrikula epea zabalik dagoela gogorarazi nahi dugu.

Urtero bezala gure eskeintza zabala da eta maila guztietara, Alfabetatze eta EGA, zuzenduta dago.

Ohizko aukera hauez gain, iaz bezala, taldeak sortzen diren lantegietan ere emango ditugu euskalduntze zein alfabetatze ikastaroak. Ildo honetan, esan behar edozein talde edo kolektiboren eskakizunen aurrean zabalik gaudela.

Informazio gehiago jaso edota matrikulatu nahi duenak, bertako bulegotik pasa daiteke edo telefonoz hotsegin:

GARIBAI ETORBIDEA 14,
3 SOLAIRUA (SINDIKATUEN
ETXEA)

TFNOA: 77 03 69

**T
X
I
L
A
R
R
A**



**ELIKADURA
BEREZIA**

Durana, 35

Tfnoa: 79 10 15

Loramendi, 9

Tfnoa: 79 44 28

ARETXABALETA

Ramones taldea Gaztetxean zuzenean



Aurreko zapatuan izugarriko kontzertuaz gozatzeko aukera izan genuen Atxabaltako Gaztetxean. Bertan herriko "Ramones" taldeak ordu t'erdiko saioa eskaini zigun. Ostean, Eskanbila talde arrasatearra entzuteko aukera ere izan genuen.

Atxabaltarrei buruz gehiago jakiteko taldeko abeslariari, Salva, elkarrizketa bat egin genion:

- **Nola sortu zen taldea?**
- Parrandako gau batetan. Gaztetxean lanean ari nintzela, erdi txantxetan hasi eta azke-

nean animatu egin ginen.

- **Zenbat lagunek osatzen duzue taldea?**

• Lau gara. Iribe (gitarra), Jose (baxua), Inaxio (bateria) eta ni (ahotsa). Guztiak atxabaltarrak gara.

- **Zergatik egiten duzue Ramones taldearen moldaketak?**

Talde hau oso gogoko dugulako.

- **Ingelese abestea asko kostatu zitzaizun?**

• Ez gehiegi, ikasketetan hain trebea izan banintz orain ingenia-

ria izango nintzateke.

- **Zenbat kontzertu eskaini duzue?**

• Lau aldiz jo dugu. Hirutan gaztetxean eta behin Kixkorrean.

- **Nola erantzuten du jendeak?**

Oso ondo. Atxabaltako jendeak beti izaten du martxarako gogoia.

- **Betiko Ramones taldea baino hobeto jotzen duzue?**

Noski. Aurreko batean deitu ziguten eurekin batera kontzertu bat egiteko (barreak).

**AITZIBER
NIÑO**



Lezama Merkatal Zentrua
Tlfnoa: 79 13 32

ITURGINTZA

J.J

Tfnoa: 79 07 34
79 31 87

JOSU

URDAITEGIA

Mitarte, 1

EUSKO LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEAK 94

HERRIKO INFORMAZIOA

ALDERDIA	1977 Legisl.	1979 Legisl.	1979 Batz. Nagus.	1980 Eusk. Parl.	1982 Legisl.	1983 Batz. Nag.	1984 Eusk. Parl.	1986 Eusk. Legisl.	1986 Eusk. Parl.	1987 Batz. Nag.	1987 Europ. Parl.	1987 Udal.	1989 Europ. Parl.	1989 Legisl.	1990 Eusk. Parl.	1991 Udal.	1993 Legisl.	1994 Europ.	Eusko Legebiltz. 94-X-23
	-	-	-	-	-	-	-	-	1061	1152	1091	1203	793	833	727	970	677	454	554
	-	696	738	537	681	636	678	814	838	904	918	904	869	891	948	886	925	825	984
	1415	1173	1596	1306	1406	1712	1733	1192	659	614	536	636	484	575	713	798	724	552	842
	711	584	380	346	730	427	565	593	592	466	491	375	410	563	525	517	714	444	502
E.E. <small>Beste Batzuk</small>	100	198	65	255	239	177	171	223	228	230	221	171	168	163	135	112	65	32	13
																	197	171	171
																	149	155	162

1994ko Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeak

Azkenean bukatu dira hauteskundeak! Hau da gutxienez herritar askok pentsatuko zutena astelehen goizean. Dena den oraindik hauteskunderi buruzko gauza asko entzun behar izango ditugu. Aurre-kanpainan leku guztietatik iritsi izan zaigu alderdi politiko guztien hauteskunde propaganda.

Hauteskunde fase honetan, politikariek batek besteari irainak botatzen pasatzen dute. Hautes-

kunderen giroa bero-bero jartzen dutenean, egun bateko atsedena hartzen dute bezperan hurrengo domekan argi egoteko.

Domeka ondoren, bigarren fasera pasatzen gara. Fase honetan bakoitzak bere erreflexioa egiten du eta hauteskundeetako ondorioak ateratzen ditu. Harri-garria izaten da alderdi denen tzat hauteskundeak positiboak izan direla entzutea. Denak daude pozik, denek dute non kontsolatu.

Dena den, hauteskundeetako datuak hartzen baditugu, ondorio batzuk atera daitezke. Alde batetik H.B. lehenengo indar politiko bezala jarraitzen du Atxabaltan. Bere ostean E.A.J. alderdia dago. E.A. da hurrengo alderdia, P.S.E.-E.E.k gertutik jarraitzen diolarik. Urrunera P.P. eta I.U. alderdiak agertzen zaizkigu eta bukaeran beste alderdi batzuk.

Norberak atera bitza bere konklusioak.

GUREA

TABERNA
JATETXEA

Durana Kalea
Tfnoa: 79 20 64



MAPFRE


Aseguroak

Errekararren, 3
Tfnoa: 77 11 76

MATIKUA

Taberna

Azatza auzoa
☎ 79 16 68
ARETXABAETA



Domekan, egun guztian zehar, Kurtzebarri eskolan mugimendu handia egon zen botua emateko orduan. Adin guztietako jendea ikusi ahal izan genuen eskupean euren botua zera-malarik.

Botua ematerakon, ohi denez, bitxikeri batzuk ere gertatu ziren. Horrela, norbaitek bere Nortasun agiria ere hautestontzian sartu ei zuen, beharbada berak ere hautatua izan nahi zuen, nork daki.

Egun guztia mahaian eserita egon ondoren, beste betebeharreko bat egoen da, botu guztien zebaketa egitea hain zuzen. Ez da lan makala eta denbora dexente eramaten du lan honek.

Hemen ere ez zen bitxikeriarik falta izan, horrela, sobre batzuetan komunerako papera aurkitu zuten batzuek botuaren orde. Norbait zalantzan ei zegoen botua emateko orduan eta hiru edo lau alderdien botuak sartu zituen sobrean.



URBALTZ TABERNA



Mitarte 21, behea
Tlfnoa. 79 79 79
ARETXABALETA



MITARTE GARAI

• *Jatetxea eta logelak* •

Areantza auzoa
☎ 79 17 51



Aurrekontuak onartzeko pleno berezira joandako zinegotziak

Azkenean onartu egin dira 94ko aurrekontuak

Kostata eta bigarren saiakeran izan bada ere, azkenean Udalean onartu egin dira 94ko aurrekontuak. Urriaren 17an egin zen pleno berezia aurrekontuak onartzeko. Dena dela, lehen saiakera hilaren 10ean egin zuten. Astelehen horretan aurrekontuak onartzeko asmoz bildu baziren ere, HBkoei aurrekontuak aurkeztu ez zizkietenez, ez zen bozketarik egin. Hurrengo as-

telehenean, 17an, barriz, aurrekontuak aurkeztu eta bozketak egin zuten. Alderdi guztiek, PNV/EAJ ezik, onartu egin zuten. PNV/EAJkoek kontrako botua eman zuten, euren iritziz aurrekontuak ez direlako zuzentzen herritarren beharretara.

Aurrekontuak onartzeko egin zen pleno berezian, 13 zinegotzitik 12 egon ziren, falta zen bakarra Jose Mari Armentia EAko zinegotzia

izan zelarik.

Beste guztiak hauek izan ziren:

PNV/EAJtik, Resu Abasolo, Koldo Azkoitia eta Jose Antonio Zubizarreta.

PSOetik, Angel Sagarrbai eta Iñaki Pierrugues.

EAtik, Domingo Clemente, Miguel Angel Delgado eta Aitor Antxia.


HBtik, Dabid Agirre, Jokin Bengoa, Aitor Irure eta Felis Beltran de Heredia.

Udalak onartu dituen gastuak

Kap	Kontzeptua	94ko aurrekontua	93ko aurrekontua
1.	Soldatak eta Aseguru Sozialak	119.943.418	133.000.000
2.	Ohizko gastua (argia, zabor biketa eserlekuak, ura, kale garbiketa)	166.351.182	140.000.000
3.	Maileguen Interesak	41.880.004	44.000.000
4.	Diru laguntzak (Taldeak, Mankomunitateko zerbitzuak)	109.613.903	94.000.000
6.	Inbertsioak	233.588.167	244.000.000
7.	Kapitalaren transferentziak	1.919.250	3.000.000
8.	Finantza aktiboak	784.778	600.000
9.	Finantza Pasiboak	45.596.882	37.000.000

Udalak izan dituen diru-sarrerak

1. Zuzeneko zergak	77.356.972
2. Zeharkako zergak	29.000.000
3. Tasak eta Bestelakoak	100.788.807
4. Transferentzia arruntak	268.894.749
5. Ondaregatiko sarrerak	4.456.088
6. Inbertsioen inorenganatzea	45.178.756
7. Kapital transferentziak	94.063.973
8. Finantza pasiboak	99.937.53



Aurrekontuak sailez-sail aztertuta

Urriaren 17an,astelehena, HB- PSOE eta EAaren baiezkotoaz, onartu egin ziren aurrekontuak azkenean. Kontra bozkatu zuen bakarria EAJ/PNV taldea izan zen.

Aurten, 719.676.882 pezetako aurrekontua onartu da. Iaz 698.800.000 pezetako aurrekontua onartu zela kontutan izanda, 94ko aurrekontua iazkoaz konparatu ezker, 20.876.882 pezeta handiagoa da.

Atal bakoitzari gainbegirada emanaz eta iazkoaz alderatu ondoren, datu hauek agertzen zaizkigu: Langilego gastuak, hau da, soldatak eta aseguru sozialak esaltzeko ezarritakoa 119.943.418 pezeta izan dira, iaz baino

13.057.418 pezeta gutxiago. Ohizko gastuei, (argia, zabor bilketa, eserlekuak, ura, kale garbiketa, materiala...) iaz baino diru kopuru gehiago zuzendu diete, 166.351.182 pezeta onartu direla jakinda eta kontuak atera ezker, aurreko urtea baino 26.351.182 pezeta gehiago hain zuzen ere. Maileguen interesetan egin den gastua 41.880.000 pezetatan aurreikusitako dute, iaz onartu zen diru kopurua haundiagoa izan zen arren, ez dago diferentzia nabarmenik. Bestalde esan dezakegu, taldeei eta mankomunitateko zerbitzuetarako onartu duten aurrekontua aurrekoa baino dexente haundiagoa dela. Iaz 94.000.000 onartu baziren, aurten

109.613.903 izan da onartutakoa. Inbertsio atalean 93ko datuak eta 94koak konparatuz, 9.000.000 pezetan dago aldea. Kapital transferentzietara ere aurten diru kopuru urriagoa zuzendu dute, milioi bateko diferentzia ikus daiteke. Finantza aktiboak, hau da, akzioen erosketak egiteko aurreikusitako aurrekontua 784.778 pezetakoa izan da, 93an 600.000 pezeta zuzendu zuten finantza aktiboetara, urte batetik bestera 184.778 pezetatan dago aldea. Finantza pasiboetarako, maileguen amortizazioak egiteko aurten 45.596.778 pezeta onartu duten bitartean, iaz 37.000.000 pezeta izan zen atal horretara zuzendutakoa.

U.D.A. eta Eskoriatzan arteko derbian berdinketa




Atsedendian omenaldia eskaini zitzaion Josebari

Ohiturari jarraituz, atxabaltarren eta eskoriatzarren arteko partidua oso berdindua izan zen. Bi taldeak gogor aritu ziren partidua irabazteko, baina naiz eta eskoriatzarrek hasiera batean aurreratu markagailuan, atxabaltako taldeak azken minutuan berdinketa lortu zuen.


Dena den, aipatzekoa da Eskoriatzako taldea kanpotar askoz osaturik dagoela eta honek bizitasuna eta lehiakidetasuna kendu dio derbi honi.

Atxabaltako pelotariak ere jo ta ke ditugu azken egunotan.

Klub-arteko txapelketan murgildurik ditugu eta era guztietako emaitzak lortu dituzte. Errasti anaiek bi partidu jolastu dituzte; lehengoa 22-16 galdu zuten Ansoła-Alzibar bikotearen aurka eta bestea 22-5 irabazi zuten Aritz-Galarza bikotearen aurka. Banan-banakoan Uribeetxebarriak 18-1 irabazi zion Aristimuñori Atxabaltako pilotalekuan eta 18-15 galdu zuen Osaren aurka Oñatin.



Gipuzkoako
Foru Aldundiak
diruz lagundutako
aldizkaria



Kultura sailak
diruz
lagundutako
aldizkaria

**ZARAIA
TABERNA**

GOIZEKO 5,30etatik
ZURE ZERBITZUAN

MANTEKA ANAIK

Harrapatutakoak



J.J. Aretxaga

Betik etxeko kontuekin hasi beharra be... Hemengo sartu-urtenak ez ete dira sekula bukatuko? Oraingoan **Itxaro Zubillagaren** txanda izan da. Joan zen astera arte egun erdiz zebilen Arrasate Press-en lanean, baina joan zen astetik mondagoetarrek egun osorako eroan digute. Eta jakina, utzi egin du Aretxagazeta, utzi egin gaitu. Albertok igarriko dio, bakarrik geratu du ta. Orain Mondragoe aldean ibiliko da **Maria Agirre** eta **Arantzazu Loidirekin** hango barri emuten. Baina ez da hau hemen bukatzen. Itxaro noren partez joan den jakin gurako duzue...Ba, atxabaltar baten lekua beteten joan da, **Andoni Urzelaireren** partez. Andoni Asegarcek fitxatu du. Baina ez pelotan jokaketako. Asegarcek produzitzen duen programa batean hasiko da tekniko lanetan. Eta orain programa horren izena jakin gurako duzue...lotsabakook! Ba, nik be ez dakit, brikolajearen gainean jarduten duen programa ei da, baina ez dakit izenik. Zeuok topatu.

Beste hauek, barrez, topetako samurragoak dira; baina harrapatako ez. Joan zen domekan ez, aurrekoan, Donostian

maratoia egin zen, 42km eta 195metroko karrera. Lau atxabaltarrek parte hartu zuten: **Fernando Uribesalgok**, **Mikel Uribetxebarriak**, **Joseba Gonzalezek** eta **Jesus Rubiok**. Horrein artean azkarrena medikua izan zen. Jesus Rubiok 3 ordutan egin zituen 42 kilometrook, hiru ordutan arinetan egin egin behar da! Medikua izanda gainera...dopin kontrola pasatu ete zuen? Egia esanda meritu handia daukate laurak.

Beste hau, barrez, harrapatu zuten; nahiz eta arinetan ona izan. Joan zen zapatuan mondagoetarrek omenaldia egin zioten **Joseba Larrinagari** Atxabalpe futbol zelaietan. Eta Canal plusekoak be hantxe izan ziren "El dia despues" izeneko programarako grabetan. Omenaldi asko jasoten dabil Joseba, denak ondo irabazitakoak. Baina aukera hau aprobetxatu gura nuke nire omenaldi partikularra egiteko Josebarekin batera lan handia egiten duen bati, bere entrenatzaileari, **Pedro Mari Azkargortari**.

Eta beste hau harrapatako oraintxe dugu aukera. **Inazio Galdos**, Indian lanean dabilen jesuita atxabaltarra, Euskal Herrian da. Hilak 16an etorri zen begietatik operetako eta azaroaren 27an bueltatuko da. Unai proiektua oso ondo doala esateko esan digute. Lan ederra egiten dabilta Inazio eta bere lagunak Indian.



Bidaian atsedenaldi bat; denak nahi dute zapi beltza duen argazkilariaren aurrean kokatu eta euren irudia hilezindu.

Ostiral Santuko irudia dugu, XXgarren mendeko edozein urtetako elizinguruan.

Herri guztia elkartu da egun berezi honetan, ospetsuenetatik hasi eta herriko ezezaguneraino.

Momentu batez, denak ahaztu dira esku artean zer daramaten eta adi-adi daude argazkilariaren aginduei.

Atzekaldean Atxabaltako parrokia ageri zaigu eta aldamenean "mariak" agertzen zaizkigu argazkian irtetzeko prest.

Zoritxarrez, aspaldiko irudiak ditugu hauek, gaur egun oso zaila izango litzateke herri guztia bildu eta horrelako argazki bat ateratzeko aukera izatea.

Emakunde sarien 5. edizioko epaimahaia

1994ko Emakunde Sarietako Epaimahaia zazpi lagunek osatuko dute: Bernardo Atxaga idazle eta Literaturako Sari Nazionala; Matilde Fontecha EHuko irakasle eta koheziketa fisikoen aditua; Helena Pimienta, Ur Antzerki taldearen zuzendaria eta azken Antzerki Sari Nazionala; Carmen Sarmiento, kazetaria; Begoña Azarloza, Eusko Jaurilaritzako Kultura Saileko Laguntza Kabinetearen Zuzendaria; Tomas Uribeetxebarria, Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Diputatua, eta Itziar Fernandez, Emakundeko Idazkari Nagusiak.

Sari hauetara lanak aurkezteko epea datorren azaroaren 10ean bukatuko da eta, iaz bezala, komunikabideetako langileen merezimendua aitortzea dute helburua. Emakunde Sariak hiru ataletan banatuta daude: idatzizko kazetaritza, irri eta ikusentzutezkoak, eta iaz bezalaxe bi arlo handietan kokatuko dira sariak, informazio orokorra eta kirolari buruzko informazioa.

Aurkeztutako lan ororen gai nagusiak aipatutako helburuekin zerikusia izan behar du, batipat hauek hobetsiko direlarik: emakumeari ezartzen zaizkion ezaugarrien al daketa, bai hizkuntzan, testuan eta irudi grafikoetan, lanbide-aukeretan aniztasuna sustatzea eta gizartearen garapenean emakumeak berdintasun osoz parte hartzeari buruzko gogoe-tak.

Bestalde, kirolen modalitatean, emakumezkoak kirol-munduan duten partaidetzaren etengabeko tratamenduari ere emango zaio balioa.

Lanak euskaraz nahiz gaztelerez aurkeztu ahal izango dira.

Izenak eta lanak aurkezteko epea 1994ko azaroaren 10eko eguerdiko 12etan bukatuko da, eta eskuz bertara eman edo postaz igorri ahal izango dira. Hona horretarako helbidea: Emakunde/Emakumearen Euskal Erakundea, Manuel Iradier kalea, 36-01005 Gasteiz.

Emakunde 1994 sarien zenbatekoa, atalen arabera

ko da, honela banatuta:

Kazetaritza idatzia:

- Informazio orokorra, 500.000 ptako. sari bat eta plaka.

- Kirola informazioa, 500.000 ptako. sari bat eta plaka.

Irratigintza:

- Informazio orokorra, 500.000 ptako. sari bat eta plaka.

- Kirola informazioa, 500.000 ptako. sari bat eta plaka.

Ikusentzutezkoak:


- Informazio orokorra, 1.000.000 ptako. sari bat eta plaka.

- Kirola informazioa, 1.000.000 ptako. sari bat eta plaka.

OHARRA: Lanak aurkezteko interesa duenak Erakunde horretara edota Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkari-ara jo dezake oinarri nagusiak eskatzu.

Irailetik Gabonak arte, "Argazkiarekin jolasean" eta "Galderekin jolasean" txandaturuz ibiliko gara. Aurreko orrialdean ikusi duzuen bezala, merezi du parte hartzea. Jakizu joku honetan **bakarrik ARETXAGAZETAko bazkideek** har dezaketela parte. Kasuan kasuko, 10.000 eta 20.000 pta. gorde ditugu zuretzat.

BAZKIDEEK BAKARRIK IZANGO DUTE JOKU BARRI HONETAN PARTE HARTZEKO AUKERA


**CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA**

▼ Hamabostero galdera bera egingo da eta hurrengo hamabostaldian ezagutuko dugu irabazlea.

▼ Erantzun guztiek ARETXAGAZETAren bulegoan (Kultur Etxean) egon beharko dute datoren eguna baino lehen..

✓ Erantzun galderak

- Zein da Euskadiko Kutxak gazteen-tzako duen libreta?
- Eta 55 urtetik gorakoentzat?
- Zein herritan dago Euskadiko Kutxaren Egoitza Zentrala?

▼ Aurreko zenbakiko erantzuna:
AITOR ANTXIA.

▼ Aurreko lehiaketaren irabazlea:
MAIDER AREJOLALEIBA GABILONDO.



Erantzunak: a).....
b).....
c).....

Izen-abizenak:.....

Helbidea:.....

Tfnoa:.....



Izena: Julen Barandiaran
Ofizioa: Arlutzeko tabernaria
Afizioa: Futbitoa
Misioa: 180 urtez hiltzea

1.- Tabernan egoteko, astebukaera edo asteguna?

- Astebukaera, martxa gehiago dagoelako.

2.- Arlutzen jende asko ibiltzen da, zergatik?

- Gazteak euren etxean bezala sentitzen direlako.

3.- Mendia ala itsasoa?

- Itsasoa, ur gehiago dago eta.

4.- Urtarorik gogokoena?

- Uda, oporretan joaten naiz eta ez dut hemengo inor ikusten.

5.- Edateko, garagardoa ala konbinatua?

- Ura, ez du bixamonik uzten.

6.- Barran uniformeaz ego-

teko esango balizute, zer egingo zenuke?

- Erosi, orain ez dut-eta.

7.- Ze moduz doa zabaltzeko asmoz duzuen taberna hori?

- Garrantzizko gauza gehienak egin ditugu, baina oraindik zailena gelditzen zaigu, ordaintzea, eta hau ez da lan makala.

8.- Traba asko eduki zenuzuten?

- Batez ere hasieran arazo asko eduki genituen auzotarrekin.

9.- Errealekoa edo Atletikekoa?

- Galdera honek ez du zentsurik, gipuzkoarra izanik...

10.- Inguruko tabernarien artean ze moduzko erlazioa dago?

- Orokorrean ona, batzuekin beste batzuekin baino konfidantza handiago dago.

11.- Loteria tokatuko baltzaizu, zer egingo zenuke?

- Ditudan zor guztiak ordaindu.

12.-Lagunak ala neskak?

- Parrandarako, lagunak, eta neskak... kartetan jolasteko.

13.- Pertsona batengan, zein da gehien baloratzen duzun birtutea?

- Zintzotasuna eta galdera asko ez egitea.

14.- Neskak, ulehoriak ala ulebaltzak?

- Denetatik gustatzen zaizkit, baita burusoilak ere.



LASAGABASTER

ZURE KONFIANTZAZKO DENDA

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55

28 EGUAZTENA

- Arratsaldeko 7etan **In-tsumiso Batzarra Udaletxe-ko Ganbaran.**

29 ZAPATUA

- 29tik 1era arte Murruxiko M.E.-rekin **Pirineotara irteera.**

- 29tik 1era arte Zاراia M.T. -ren **irteera berezia.**

31 ASTELEHENA

- **Loramendi Kultur Elkarteak** antolatuta Gantxi-lo ikastaroa 3retatik 5etara. Apuntatzeko epea zabalik dago.

1 MARTIZENA

- **Domu Santu Eguna.**

5 ZAPATUA

- **Loramendi Kultur Elkarteak** antolatuta Txalaparta ikastaroa egongo da.

- **Dantza ikastaroa** ere izango dugu Loramendi kultur elkartearen bitartez.

OHARRA: Loramendi Kultur Elkartearen bitartez ezagutarazi nahi da, abendua-ren 17an antolatuko den Berri-Zahar egunerako kuadrilak behar direla. Interesatuak lehen bait lehen eman izena.

ARETXAZOKA

Lana

- ✓ Ingeleseko eta frantzeseko klase partikularrak ematen dira. Tfnoa: 79 32 73.

- ✓ O.H.O.tik F.P.rarte klase partikularrak ematen dira. Tfnoa: 79 86 72.

- ✓ Neska bat prest dago umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Interesatuak deitu 79 89 56 telefonora.

- ✓ Etxeko lanak eta umeak zaintzeko neska bat prest dago. Tfnoa: 79 77 12.

Etxebizitza

- ✓ Gasteizen ikasketak egiten eta gure ordutegiarekin bat datorren jendea bilatzen ari gara. Tfnoak: 76 55 70- 79 36 93.

- ✓ Erdi jantzitakosolairua salgai dago San Miguel auzoan. Interesatuak deitu 79 76 72 telefonora.

- ✓ Solairu bat salgai dago Andra Mari Zuri auzoan, 10-3 D. Interesatuak deitu 79 47 08 telefonora

Salerosketak

- ✓ 52.000 km. dituen Ford Escort bat salgai dago. Prezioa negoziata daiteke. Tfnoa: 79 47 94.

- ✓ Eskoriatzan garajeak dauka salgai. Interesatuak telefono hauetara deitu dezakete:

79 16 05 (Kontxi)

79 43 73

71 47 27

71 41 51

71 47 14 (12.30tik aurrera)

LASTER IREKIKO DA (Urriak 28)
OBSTETRIZIA ETA GINEKOLOGIA KONTSULTA
SERRANO Sendagilea

Minbizi genitalaren prebentzioa
Antisorkuntza
Menopausia
Titi-patologia
Kirurgia

Haurdunaldia
Jaioaurreko diagnostikoa
Esterilizazio kirurgikoa (gizon eta emakumezkoa)
Esterilitatea
Ginekologia psikosomatikoa

Prezio bereziak 25 urtetik beherakoentzat, etxeoandrentzat eta Hirugarren adinekoentzat

(Lagun-Aro Aseguruak, Igualatorio Mediko-Kirurgikoa ...)

San Martin Osasun-zentroa
Ramon Maria Lili kalea, 2 (lehengo Lasaren atzeko aldean)

Bergara

Telefonoak: 76 59 39 - 72 Faxa: 76 25 72



Feli Jantzidenda

Iparragirre, 4
Tlfnoa: 79 21 24

MODAN

DAGOEN

GUZTIA